

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAK HARREMANAK ESTUTZEN DITU HAINBAT HIRIREKIN HELMUGA SUSTATZEKO

Cristina Lagé Turismo Iraunkorreko zinegotziak bilera sorta bat hasi du aste honetan Espainiako hainbat hiritako turismo arduradunekin, harremanak estutzeko eta elkarlanerako bide berriak zabaltzeko.

"Pandemiak hurbileneko turismoa indartzera behartu gaitu, turismo nazionala, eta gure ustez, elkarlanerako bide bat has dezakegu hainbat hirirekin, gure hiria helmuga gisa sustatzeko, eta alderantziz, donostiarrek ihesaldi baterako edo oporretarako alternatiba posible gisa har ditzaten, erakargarritasun handiak eskaintzen dituzten hiriak baitira eta eskura baitaude", adierazi du Lagek.

Horrela, lehen bilera erronda honetan, Donostiako zinegotziak Zaragoza, Malaga eta Sevilla bisitatu ditu, turismo arduradunekin bilerak eginez, eta horiekin sustapen eta lankidetzak ekintzak zehazten hasi da.

* argazkian, Lagé Sevillako Hiri Habitat, Kultura eta Turismo zinegotziarekin batera, Antonio Muñoz

Prentsa oharra

Nota de prensa



Zentzu horretan, bihar Donostiako ordezkaria Maider Arosteguy Biarritzeko alkatearekin bilduko da. "Une honetan, funtsezkoa da hiri estrategikoekin lankidetzan aritzea, gure hurbileko turismoa indartzeko", esan du Lagek, eta komunikazioak hobetzeko nahia adierazi du, aireportu bidez, adibidez, hiri horietatik Donostiara datozen bisitariei sarbidea errazteko, eta alderantziz.